

Sin

Laster 20 urte beteko duen talde ermuar honek 'punkrock erromantikoa' jorratzen du eta hurrengo kontzertua Bilboko jailetan ematekoak dira.

1 *Noiz sortu zen taldea eta zer dela eta?* Betidanik gustatu izan zaigu musika taldekide guztioi. Ez bakarrik entzutea, baita jotzea ere. Hori dela eta, 1994an jotzeko asmoarekin elkartu ginen.

2 *Nondik dator zuen izena?* Hasieran, izenaren bila genbiltzanean, 'Sin nombre' esaten genion taldeari eta azkenean 'Sin' geratu zen.

3 *Zenbat kide zarete eta zein musika tresna jotzen du bakoitzak?* Bost kide gara: Moi (ahotsa), Alberto eta Pablo (gitarak), Javi (bateria) eta Miguel (baxua). Hala ere, urteak aurrera joan ahala, aldaketak izan ditugu baterian: Hasieran Mack egon zen, ostean Maikelen jo zuen eta jarrian Mariok ekin zion. Orain Marioren anaia dago gurekin, Javi.

4 *Zein da zuen musika estiloa?* Punk rocka dela uste dugu. Behin, Eibarko gaztetxeko kartel batean, 'punkrock erromantikoa' jotzen genuela jarri zuten eta egia esan, ez da definizio itsusia.



5 *Zeri buruz hitz egiten dute zuen abestiek?* Abestiak guk sortutakoak dira eta bizitzari buruz hitz egiten dute. Eta bizitzan, edozein gauza gerta daiteke!

6 *Non entseatzten duzue?* Eibarko lokaletan, Legarren, asteburuetan.

7 *Noiz eta non eman zenuten azken kontzertua eta noiz eta non emango duzue hurrengoa?* Azkena Ermuko VertigoRocken eman genuen. Hurrengoa, berriz, ez daukagu oraindik lotuta, beharbada, Bilboko jailetan.



8 *Diskorik kaleratu duzue?* Bai, 1999an maketa bat grabatu genuen eta 2001ean diskoa argitaratu genuen. Gaur egun ez daude salgai... agortu ziren-eta.

9 *Zuekin harremanetan jartzeko?* Gure mugikorretan aurkituko gaituzue: Moi, 6697232870; Javi, 686904529 eta Miguel, 669743802.